



# Usurbilgo

zaintza eredia



Herri oso bat elkar-zaintzera hurbilduz



XXI. mendeko gizarte honek duen erronka nagusietako bat da zaintzarena, izan ere, errealitate soziodemografiko berri baten aurrean gaudela erakusten du hamarkada honen amaierarako proiektatutako demografia piramideak. Gero eta zaharragoa da gizartea, eta, ondorioz, iraupen luzeko zaintzak luzatzen ari dira, mendekotasun indizeak goraka doaz, familia egiturak aldatzen, eta gero eta gehiago dira bakardade egoeran —batez ere, bakardade ez hautatuan— bizi diren herritarrak, eta abar. Testuinguru honetan, hortaz, zaintza eskariaren handitze nabarmena ematen ari da, eta egun zaintza lanak antolatzeke dugun moduak ez ditu gizartearen beharrak asetzen.

Gizateriaren une erabakigarri honen aurrean, beraz, premiazkoa da erronka honi erantzuna emateko herri estrategiak diseinatzea, eta Usurbilen horretan ari gara urte luzeotan.

Indibidualismoak eta gizarte fragmentazioak erasandako gizarte molde hauskor honetan, gisa honetako erronka bati erantzuteko ezinbestekoa da komunitatearen izaera sendotzea, izan ere, gure indartze komunitarioa izango da gure ongizatearen berme nagusia. Zaintzak ez dira soilik gure bizitzako etapa zehatz batean, hasieran edo amaieran, behar dugun zerbait. Gizakiok pertsona interdependenteak gara, eta denok behar dugu gure bizitza osoan zehar zainduak izan. Gure zaurgarritasunei aurre egiteko era bakarra elkar zainduz da. Zaintzak ongizatea eskaintzen digu.

Alabaina, ezin ditugu zaintzak erromantizatu, egun eremu honetan zapalkuntza eta diskriminazio ugari gertatzen direlako. Gure bizitzaren sostengu nagusia bada ere, zaintzak ez du gaur-gaurkoz ez prestigiorik ez balio sozial, politiko eta ekonomikorik. Gatazka eremu


da, eta askotariko ondorioak elkar gurutzatzen dira: lan prekarioa eta arrazializatua, lan merkatuko segmentazioa, pobrezia, denbora pobrezia, bizi proiektuen alboratzea, bazterketa soziala edota indarkeria matxista.

Guztiok dugu zainduak izateko eskubidea, ez, ordea, beste pertsona baten eskubideen kaltetan: hori da gure printzipio gidaria. Beste modu batean esanda: eskubide guztiak eta betebeharrak berdinak herritar guztientzat.

Usurbilerako propio sortu dugun zaintza ereduaren inguruko edukia topatuko duzu ondorengo orriotan.

Agurtzane Solaberrieta Mesa  
Usurbilgo alkatea

# Usurbil, herri zaintzailea



Usurbil herri zaintzailea izatea nahi dugu. Hau da, zaintzaren erronkari dimentsio guztietatik heldu nahi diogu: horixe da Usurbilentzako dugun proiektu politikoa eta abian jarri dugun udal-jarduna.

Horrek herri ikuspegia izatea eskatzen digu, eta genero ikuspegia zeharkakotasun erradikal bihurtzea, hau da, zaintza udal politika guztietan txertatzea, herria egituratzeko eta kohesionatzeko elementu bilakatuz.

Udaleko eremu guztietan ari gara norabide horretan lanean, besteak beste:

- Pertsona ardatz duen arreta eredua jarri dugu martxan, eta zaintza ekosistema oso bat antolatu dugu horren bueltan.
- Zaintzari lotutako lizitazio publikoak eredu berriaren arabera ari gara egokitzen, zaintza lanetan ari diren langileen lan baldintzak duindu eta zaintza behar duten pertsonen ongizate komunitarioa bermatzeko.
- Usurbilgo Plan orokorrean zaintzari eta eguneroko bizitzari

erantzungo dion herri antolamendua eta hirigintza feminista txertatu dugu.

- Mugikortasun aktibo eta jasangarria sustatzen ari gara, trantsizio ekosozialagatik ez ezik, baita zaintzaren ikuspegitik ere, besteak beste, oinezkoak lehenesten dituzten kaleak bultzatzen, harremanak sustatzen eta zaintza behar duten pertsonen eta adinekoen autonomia eta segurtasuna sustatzen.
- Espazio eta eraikin publikoak irisgarri bihurtu nahi ditugu, irisgarritasun unibertsalaren printzipioarekin bat eginda.

— Elkar zaintzeko eta belaunaldiartekotasun kolektiboa sustatzea ahalbidetzen duten ekipamenduak eraikitzea eta proiektuak sustatzea.

- Etxebizitza politika: kolektibo ezberdinen etxebizitza beharrei erantzutea, zaintza premiak ere kontuan hartuta.
- Festa eta kultur programazio inklusiboagoak landuz.
- Hezikidetzaren programetan zaintza balio eta erantzunkidetasun gisa sustatuz, batez ere, mutikoetan.

— Tokiko merkataritzaren aldeko apustua eginez, merkataritza zaintzailea indartuz.

- Harrera herri izateko bokazioz, gure herrira bizitzera datozen lagunen integrazio komunitarioan lagunduz.
- Enplegu duinak eta profesionalizazioa sustatuz
- Euskaraz zaindua izateko eskubidea bermatzeko langileen euskalduntzea bultzatuz.
- Lurraldearen zaintza barnebilduz.

— Komunitatearen izaera indartzea, elkar-zaintza balio unibertsal bihurtuz.

Zaintza zirimiria da, eremu guztiak blaitzen ditu, eta gizartearen eraldaketarako palanka da. Administrazio publikoak eskaintzen dituen zerbitzu eta baliabideez harago doa, baita senideen laguntzaz edo bestelako zerbitzuez harago ere.

Proiektu konpartitua bada soilik izango gara gai zaintza behar duten herrikideei bizitza duin eta bizigarriak bermatzeko.

# Arreta ereduaren eraldaketa: zerbitzuak eskaintzetik bizi-planak eskaintzera



Noizbait pentsatu duzu nolakoa behar duen izan zuk erabaki ez duzun bizitza bat bizitzea? Zure bizitzaren norabidea beste norbaitek marraztea? Zure herritik kanpo bizi behar izatea edo bertan izanda ere isolatuta egotea?

Egoera horiek ohikoak izaten dira zaintzak modu iraunkorrean behar dituztenentzat.

Egun, EAEko Gizarte Zerbitzuen bakoitzaren eskumenak eta zereginak, eta menpekotasun balorazioen arabera prestazioak eta zerbitzuak eskaintzen dira: iraupen luzeko zaintzak behar dituzten pertsonak garbi, ondo elikatuta edo egoki atonduta egotea lehenesten da, bestelako beharrak alde batera utzita eta guztiegi erantzun berbera eskainiz.

Gure ustez, ikuspegi horrek ez du pertsonen ongizatea erabat bermatzen, eta, beraz, beharrezkoa iruditzen zaigu pertsona ardatz duen arreta eredu garatzea.

Norberarentzat bizigarria eta duina den bizitza definitu eta garatzen laguntzen digun tresna da Bizi Plana, eta jautzia ematera goaz: **zerbitzuak eskaintzetik bizi planak eskaintzera pasatuko gara.**

# Bizi Planak



Bizi Plana norberaren bizitzaren inguruko erabakiak hartzea errazten duen tresna da. Dokumentu dinamikoa da, zeinean pertsonak berarentzat garrantzitsua dena islatzen duen: pertsonak nahi duen bezala bizitzen jarraitzeko ekintzak eta baliabideak zehazten dira, bere balio, lehentasun eta premien arabera tratatua eta artatua izan dadin.

Gure helburua da iraupen luzeko zaintza-prozesuetan jarraikortasuna bermatzea, norbere bizitzari zentzua ematen jarraitzea, bizi-proiektuan hausturarik eragin gabe eta bizitza duina eta bizigarria

ahalbidetzea. Gai izan nahi dugu bakoitzaren lehentasunei, nahiei eta erabakiei erantzuneko dien arretak eskaintzeko, era koordinatuan, zerbitzuen integraltasunetik eta komunitateak eskaintzen dituen aukerak profitatuz. Hots, eta labur esanda, **persona bakoitzari egokitutako eta modu parte-hartzailean osatutako bizi planak eskaintzea, zerbitzuen logika zurrunetik aldenduz**, zaintza behar duen pertsonari erabakimena emanda.

Planak pertsona bere osotasunean ikusten du, eta bere bizitzako hainbat alor hartzen ditu kontuan. Alor horietako asko beste pertsonekin harremanetan eta herriko testuinguruan eman daitezke. Beraz, herritar oro eta herria bera ere, neurri batean, pertsona horren zaintzaren arduradun izan daitezke.

Inguruak eskaintzen dionaren arabera, zaintza behar handia duen pertsona batek gauza gehiago edo gutxiago egin ahal izango ditu, era autonomoago edo mendeago batean, edo komunitatearen parte edo kanpo sentituko da.

# Usurbilgo zaintza ekosistema

Bizi Planak eskaini ahal izateko, ezinbestekoa da pertsona baten zaintzan zeresana duten pertsona eta eragile guztiak saretzea, hots, tokiko ekosistema baten bueltan lanean aritzea, erdigunean zaintza behar duten pertsonak kokatuz.

Horrek herrian lanean ari diren **zaintza zerbitzu eta eragile ezberdinen koordinazioa eta lanen sistematizazioa bermatzea eskatzen du, antolaketa eta egitura berri bat sortuz.**

Horretan aritu gara, eta ondorioz, ikuspegi ekosistemikoa aintzat hartuta aritzen diren hainbat lantalde sortu dira:

- Zerbitzuetako lantaldea (Egurtzegi, Eguneko Arreta,

Eguneko Zentroa, etxez etxeko zerbitzua, esperientzia eskola, oroimen tailerra...)

- Koordinazio soziosanitariorako lantaldea, gizarte langileek eta herriko mediku eta erizainek osatua.

- Zaintza komunitarioaren lantaldea.

- Zaintza behar duten pertsonen lantaldea.


- Zaintzaile profesionalen lantaldea.

- Zaintzaile afektiboen lantaldea.

Talde horiek guztiak lotuta daude euren artean, eta denen arteko koordinazioaz arduratzen da erreferentziatzeko gizarte langilea.

Era berean, beharrezkoa da **zaintza zerbitzuek ekosistemaren arabera lan egitea**: udalak eskaintzen dituen zaintza zerbitzuen lizitazio berriak ekosistemaren edukietara eta lan egiteko moduetara egokituko ditu. Orain arte enpresen borondateak eta atxikimenduak egin du posible, eta aurrerantzean, betebeharrak gisa eskatuko zaie.

Garrantzitsua da, halaber, **etxeko arretan eragitea**: prestazio ekonomiko bidez etxeko arretan lanean ari diren langileak ekosistemaren antolaketa berrira ekarri eta ekosistemaren parte bihurtu nahi ditugu. Horretarako, ezinbestekoa da familien konplizitate eta elkarlana.



# Usurbilbizi: lau misio, herri bat




Gaur egun inork gutxik jartzen du zalantzan garai aldakorrek bizi ditugula eta hamarraldi erabakigarrian gaudela gizateriaren historiari dagokionez. Horregatik, ezinbestekoa da, burua altxatu, datorkigun munduaz jabetu, eta geure buruak prestatzea garai historiko honi aurre egiteko. Bokazio eraldatzailez ari gara, beraz, erronka globalei tokikotik, Usurbildik, erantzuten, eta lanketa hori guztia misioen logikan kokatu dugu.

Usurbilgo Udalak lau erronka identifikatu ditu, eta bakoitzari misio bana ezarri dio. Erronka horietako bat da zaintzarena, eta honako misioa finkatu diogu:  
**2030erako norbere bizitza proiektuari erantzungo dion zaintza eredu integral eta duina lortzea, erantzunkidetasuna, eragileen arteko lankidetzaren eta zaintza langileen profesionalizazioa eta duintasuna ardatz izango duena.**

Era berean, misio hori garatzeko helburu zehatzak ezarri ditugu:

- 65 urtetik gorako pertsonen % 25ek zaintza Bizi Plana martxan izatea.
- Usurbilgo 5 auzotan % 25a gizonezkoak izango diren zaintza sareak martxan jartzea.
- Etxez etxeko zerbitzua jasotzen dutenen kopurua eta zaintzarako prestazioa jasotzen dutenena orekatzea (%50 eta %50)
- Zaintza langile eta familien % 50a zaintza ekosisteman egotea

## 2030erako norbere bizitza proiektuari erantzungo dion zaintza eredu integral eta duina lortzea, erantzunkidetasuna, eragileen arteko lankidetzaren eta zaintza langileen profesionalizazioa eta duintasuna ardatz izango duena



# Usurbilgo Gizarte Zerbitzuak

943 37 71 10

gizarte-zerbitzuak@usurbil.eus

---

## Bultzatzaileak



**HERRI  
ZAINZAILEA**  
USURBIL



**Usurbilgo  
Udala**

## Laguntzaileak



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputac on Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA  
ORAIN**  
Es futuro